

begira



31. zk.
2014ko uztaila

 **ULMA**

Elkarrizketa Maixel
Kortabarriari. ULMA
AGRICOLAko lehendakaria

ULMA Handling Systems
osasun sektorean sartu da



ULMA GARA!

ALBISTE
Elkartasuna



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA Construction Peru **bere**
aldamioen segurtasunagatik
errekonozitu dute.



ERREPORTAJEA.
ULMA Handling Systems
osasun sektorean sartu da.



KOLABORATZAILE TALDEA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,
Ana Da Costa, María Sendín,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Romu Arteché eta Karlos Alzola.

Argitaratzailea:

Grupo ULMA S. Coop.,
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.
20560 OÑATI.

Tel.: 943 25 03 00

Faxa; 943 78 09 17.

e-maila: begira@ulma.com.

Diseinua eta maketazioa:

Marka, Komunikazio eta EES Arloa.

Inprimategia: Gertu S. L.

Euskarazko itzulpena: EMUN Koop.E.



Paper ekologikoa

EAK ETA GAURKOTASUNA.
Opari Txartel moduan.



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
 ULMA Orga Jasotzaileak etxeak
e-commerceko esperientzia
 arrakastatsua aurkeztu du SIL 2014an.



EDUARDO TROTA



ERREPORTAJEA.
Ontziratze lerroen eta sistemen automatizazioa ULMA Packagingen eskutik, **Interpacken**.



2014ko uztaila

4 **albisteak eta gaurkotasuna**
 ULMA Agricolak arrain haztegi bat egin du Islandian.

ULMA drainatze kanalak Beira Rio Brasil estadioan: 2014ko futboleko mundialaren egoitza.

ULMA Piping amerikar ingeniari-tza ospetsu batekin lankidetzan KARAN K-45 proiekturako.

ULMA Conveyor Components. ArcelorMittal Liberia proiektua.

16 **aurrez aurre**
 Maixel Kortabarria. ULMA Agricolako lehendakaria.

18 **erreportajea**
 ULMA Handling Systems osasun sektorean sartu da.

20 **erreportajea**
 Ontziratze lerroen eta sistemen automatizazioa ULMAren eskutik, Interpacken.

22 **erreportajea**
 ULMA Taldearen Laneko Osasunaren Arloa.

24 **agenda eta iradokizunak**

« ULMA PIPING

ULMA Piping amerikar ingeniari- eta ospetsu batekin lankidetzan KARAN K-45 proiekturako

ULMA Piping soldadurako estalkia duten 38"-ko bridak diseinatu eta garatzeko lankidetzan ari da egoitza Arabiar Emirerrietan duen amerikar ingeniari- eta ospetsu batekin, Aramcoko Karan K45 proiekturako.

Karaneke gas hobia Pertsiar Golkoko itsaso zabalean dago, Saudi Arabiaren eremuko uretan, 40m (131ft) eta 60m (197ft) arteko ur sakoneran. Hobia 2006ko apirilean aurkitu zuten, eta gas ekoizpena 2011ko uztailean hasi zen. Horrekin eremuaren garapenaren lehen fasea amaitu zen, eta garapen osoa \$ 4-5 mila milioi kostatuko dela aurreikusten da.

Karan 45 proiektuaren barruan daude petrolio plataforma berri baten fabrikazioa, plataforma osagarria eta urpeko instalazioarekin lotzeko zubia, 20 hazbeteko fluxu linearekin.

110 kilometroko (68.3mi) urpeko gasbide batek eramaten du Karanen ekoiztiko gasa Khursaniyaheko prozesamendu plantara.

ULMA Pipingeko ingeniari- eta taldearentzat proiektu honek oso sinkronizazio maila handia eskatu du ingeniari- eta taldearen bulegoarekin, Saudi Arabiako Al-Khobarren, Saudi Arabian. Halaber, kooperatibak azken urteetan I+G+Bn egindako inbertsioa agerian uzten du, bestela ezinezkoa bailitzateke horrelako proiektu handietan parte hartzea.



« ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak, 30 urte lanean

1984ko ekainean, orain dela 30 urte dagoeneko, OINAKAR S. Coop. sortu zen, Euskadiko Kutxaren Enpresa Dibisioaren ekimenez, merkatu azterketa bat egin eta gero, orduan logistikaren eta mantentze lanen sektorean negozio aukera bat zegoela identifikatu baitzen.

Ingurunearentzat oso garai zailak zirelarik, orga jasotzaileak fabrikatu eta banatzeko proiektua egiazko alternatiba izan zen Loyola Txokolateak ixteagatik arriskuan zeuden lanpostuak salbatzeko. Egoera hartan, Jose Maria Ormaetxeak eta Javier Reteguik Jose Maria Loiti proposatu zuten sustapen berriaren arduradun gisa eta, hasieran Loyola Txokolateetan hutsik geratzen ziren lanpostuak salbatzeko aukeratzat hartu bazen ere, azkenean helburua nabarmen gaintu zen, inguruko beste enpresetan sobera zeuden lanpostuak ere xurgatzeko balio izan baitzuen. Horrenbestez, 80ko hamarkadaren amaieran, 1.600 milioi pezeta fakturatzen ari ziren, eta bi negozio lerro sortuta zeuden.

Artean, orga jasotzaileak fabrikatu eta banatzeko merkatuak arazo handiak zituen: kapital nazionalako fabrikatzaile bakar eta merkatuan liderra zen Fenwick Alemaniako etxe batek xurgatu zuen, eta sektorean zegoen euskal enpresa bakarra desagertu egin zen. Japoniako MITSUBISHI enpresarekin sinatu zen lankidetzak hitzarmenak jardueran hastea eta enpresa martxan jartzea ekarri zuen. 1987an, Oiñakar OÑALAN Taldean sartu

zen, gerora ULMA izango zenean, eta 1988tik aurrera kooperatibak ULMA Manutencion S. Coop. izena hartu zuen, bi jarduera negozio aski bereizirekin: Orga Jasotzaileak eta Handling Systems.

Hainbat hamarkadaz egoitza sozial bera partekatu eta gero, 2010eko azaroaren 2an egin zen Ezohiko Batzar Nagusian, gehiengo zabal batez, ULMA Manutencion S. Coop. en bereizketa partziala egitea erabaki zen, eta ULMA Orga Jasotzaileen negozioa ULMA Servicios de Manutención S. Coop. izeneko sozietate berrian sartzea.

ULMA Orga Jasotzaileen jarduera orga jasotzaileen gama oso-oso zabal baten banaketan zentratuta dago, bateko eta besteko bezero eta sektoreetatik datozen beharrei egoki erantzuteko, guztia ala guztia Bezeroaren Arreta Zerbitzu bikainarekin, eta estatuaren %100 estaltzen duen Sare Komertzial eta Saldu Osteko Zerbitzu zabalarekin.

Enpresak dituen kalitate ziurtagiri desberdinek argi eta garbi erakusten dute ULMA Orga Jasotzaileetan bezeroekin dagoen konpromiso eta inplikazio maila.

Orain dela 30 urte lanpostu asko arriskuan jarri zituen egoera ekonomikoa –gaur egungoa bezalakoa– arintzeko sortu zen proiektua, egun, estatu mailan erreferentzia den enpresa errealtate bihurtu da, bere parte izan diren pertsona guztien esfortzuaren eta ilusioari esker.

25 latrazem

ULMA CONSTRUCTION

ULMA Construction Polonia zilarrezko ezteiak ospatzen ari da

Urte honetan zehar ULMA Constructioneko Poloniako filiala zilarrezko ezteiak ospatzen ari da. Lehendabiziko urratsa 1989ko martxoan egin zuen, BAUMA Sp. z o.o. izenarekin merkataritza erregistroan inskribatu zenean. Gaur egun ULMA Construction Polska izen fiskalarekin lan egiten du. 25 urteren buruan, Poloniako eragile nagusietakoa bihurtu da enkofratu eta aldamioren munduan.

ULMA Constructionek Polonian duen kokapena proiektu handietan lortutako esperientziaren emaitza da, herrialdean bertan zein munduko gainerakoan Halaber, enpresak izandako bilakaera etengabeak funtsezko rola jokatu du, betiere bezeroari zerbitzuko estandarrek eskaintzeko eta merkatuaren aldaketa etengabea egokitzeko.

Liderraren kokapen horretan jarraitzeko eta erantzuteko ahalmena handitzeko nahiarekin, dagoeneko dauden zentro logistikoei Poznań, Jaworzno, Koszajec (Varsoviatik hurbil) eta Gdańskekoak gehitu zaizkie. ULMA Constructionek Polonian duen estatusak hainbat obra prestigiotsu egitea ahalbidetu dio, hala nola: Warminska Galeria Olsztynen, Kraków Arena sports and entertainment hall, Noble Tower Poznańen, Kielce Trade Fairs Congress Centre, Koziennice zentral elektrikoa, Połaniec zentral elektrikoa, M. Skłodowska-Curie zubia Varsovia, University autobidea Bydgoszcz, Elżbieta Zawacka zubi nagusia Toruńen, Pomeranian Metropolitan Railways, batzuk aipatzearen.

ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek ekipajeak tratatzeko lehen proiektuak egin ditu Errusian

Errusiako Narian Marreko aireportuan ekipajeak tratatzeko sistema izango da errusiar herrialdean ULMA Handling Systemseko Baggage Handling negozioi lehen proiektua.

Narian Marreko aireportua zein baldintza klimatologiko muturrekoetan dagoen kontuan hartuta, ekipamendu guztiak -40°C-ko tenperaturak jasateko diseinatu dira. Helburu horri erantzuteko, instalazioan ekipamendu bereziak daude, horien artean berotu daitezkeen sentsoareak, olio berezi batekin funtzionatzen duten moto erreduzitzaileak, konporta bereziak...

Proiektuan bi fakturazio mahai

daude, ikuskapen lerroak eta ekipajeak garraiatzeko sistemak. Gainera, azken orduko ekipajeetarako eta helikopteroen erabiltzaileentzako fakturazio postu berezi bat dago.

Halaber, ULMAk beste proiektu berri bat garatuko du Novi Urengoiko aireporturako, Errusian, udazken hasierarako amaituta egongo dena.



ULMA PACKAGING

TSA 680 termozigilatzaile automatiko berria

TSA 680 TERMOZIGILATZAILE AUTOMATIKO BERRIA

ULMA Packagingek eraginkortasun handiko termozigilatzaileen modelo berri bat merkaturatu du, diseinu guztiz higienizagarriarekin.

TSA 680 termozigilatzeke modelo berria enbasatze lerro osoetan integratzeko diseinatu da, eta ezaugarri nagusi hauek ditu:

- Zigilatzeke gehieneko azalera: 330x680 mm
- Erretiluren gehieneko altuera: 120 mm
- Produktibitatea:
 - 14 ziklo/min huts/gasarekin eta hondar oxigenoa < % 0.3
 - 16 ziklo/min huts/gasarekin eta hondar oxigenoa < % 1
 - 20 ziklo/min ebaketa/zigilaketarekin.

Makina bertsio sinplean zein lerro

bikoitzekoan eskuratu daiteke.

Kostu operazionala murrizteari eta eraginkortasun handiko termozigilatzaile bat fabrikatzeari dagokionez, kontsumo pneumatikoa %87,5 murriztea lortu da, eragintza pneumatikoko makinekin alderatuta.

Eraginkortasunaren hobekuntza horrek orduko kostua ere murriztea eragiten du, %84, antzeko modelo pneumatikoekin alderatuta.

PC industrialean oinarritutako kontrol propio bat ere badauka, UPC delakoa, aginte paneletik askotariko elementuak kontrolatu ahal izateko.

Termozigilatzaile automatikoaren modelo berri honekin ULMA oso kontuan hartu beharreko erreferentzia moduan kokatzen da termozigilatzaileen fabrikatzaileen merkatuan.



ULMA CONSTRUCTION

ULMA Construction, beren merkatuetan liderrak direnekin aliantza estrategikoak egitearen alde

ULMA Constructionek beste urrats bat egin nahi du munduko edozein lekutan bere zerbitzuak hobetzeko, erantzuteko ahalmena handituz eta soluzio integral lehiakorra eskainiz. Merkatu desberdinetan liderrak diren enprekin aliantzak egitea da giltza.

ULMA CONSTRUCTION & INDUSTRIAL CONCRETO

Kolonbian eraikuntzaren merkatua izaten ari den hazkundea eta sektorean CONCRETOk duen kokapen ona kontuan hartuta, enpresa talde hori aliatu onena da ULMAk Latinoamerikan duen posizioa indartzeko.

INDUSTRIAL CONCRETO

Concreto enpresa taldearen filiala da, bost negozio unitate ditu: Agregatuak, Aurrefabrikatuak, Durapanel, Enkofratuak eta Egiturak, eta bere misioa da eraikuntzaren sektorerako soluzio integralak garatzea, prozesu eta produktu eraginkor, berritzaile eta ingurumenarekiko iraunkorren bitartez.

ULMA CONSTRUCTION & ATTIEH

ULMA Construction & ATTIEH aliantzak 6 urte daramatza martxan. Lankidetzaren horren emaitza hainbat proiektu handi dira, hala nola Briman Project (ur depositu estrategikoak), Damman Project, etab. Attieh Steel

Ltd. Konpainiak 55 urte baino gehiagoko esperientzia dauka, eta Saudi Arabiako Jeddahen ekin zion bere ibilbideari, herrialdeko lehenengo banatzaileen artean. Gaur egun Ekialde Hurbileko eta Afrika Iparraldeko altzairuaren sektoreko enpresa liderren artean ezagutzen da.

Enpresa taldeak hainbat eremutan dibertsifikatu du bere negozioa, horien artean azpiegiturak, elektromekanika, ekipamendu medikoak, etab.

Aliantzek onura hauek ekartzen dizkiete bezeroei:

- Soluzio eta zerbitzu integral pertsonalizatua eta jarraitua, enkofratu sistemetan, apeo egituretan eta aldamiotan
- Bezeroarengandik hurbil dagoen logistika, tokiko zentro estrategikoekin
- Euskarri komertzial eta tekniko kualifikatua eta hurbilekoa, sektorean nazioarteko erreferentzia den erakunde batean bermatuta
- Teknologia lider eta abangoardiako baten garantia, merkatu bakoitzari egokituia, ULMA Constructionen eta bere aliatuen esperientziak integratzen dituena.

ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek erretiluak zigilatzeako kontrol sistema propioa garatu du

UST IZENENKO SISTEMAK ERRETILUAK ZIGILATZEAREN HERMETIKOTASUNA ALDATU DEZAKEEN ELEMENTURIK ETA PARTIKULARIK DAGOEN AZTERTZEN DU.

Sistema berria ULMA Packaging Technological Centerreko produktu berrien garapenerako ingeniariaren eta Automatizazio Arloaren arteko lankidetzaren emaitza da, Automatizazioan ezinbestekotzat jo baitzen produktu hori bere katalogoan izatea, termoformazioako eta termoizigilatzeako lerro osatuetan integratzeko elementu gisa.

Makinak PC industrial propioan oinarritutako kontrola dauka, UPC delakoa, eta horrek hainbat parametro erabiltzea eta gordetzea ahalbidetzen du erretilu edo produktu mota bakoitzerako.

Bere ikusmen sistemaren bitartez, termoformatu edo termoizigilatutako erretilu guztiak irudiak jasotzen ditu, 80 enbase/min-ko kadentziarekin eta 1 mm²-ra arteko sentsibilitate mailarekin, eta bezeroak zigilatzearen kalitatearen inguruan ezarritako mugen barruan sartzen ez diren erretiluak automatikoki baztertzen ditu.

Modu osagarrian, etiketaren kontrola ere egin dezake, baita irakurgarritasuna txekatu ere.



ULMA TALDEA

ULMA Plusen onurez baliatzeko izena emateko epea ireki da

Orain dela urte bat ULMAPLUS ekimena aurkeztu eta martxan jarri eta gero, joan den ekainean ordainsari malguko sistemaren produktuak eta zerbitzuak lortzeko izena emateko, berritzeko eta hautatzeko epe berri bat ireki zen; horren onurak kontratatzen den dataren hurrengo hiletik aurrera jartzen dira indarrean, eta aurtengo abenduan amaituko dira.

Nobedade gisa, interesa duten eta gutxienez 6 hilabeteko antzintasuna duten ULMAko bazkide eta langileen sarrera errazteko, izena emateko sistema etengabe bat ezarri da, aurten ULMA Plusen sartu ahal izateko.

ULMA Plus Programak aukera ematen du diru bidezko ordainsariaren ordezkari gaurerako ordainsaria eskuratzeko, PFEZetik libre dauden produktuak edo zerbitzuak kontratatuz, bazkide/langile bakoitzak bere borondatez aukeraturik, bere lehentasun eta behar indibidualen arabera.

ULMA Plusen abantaila fiskalak ematen dituzten zerbitzu eta produktuen artean daude istripu aseguruak, mediku aseguruak, prestakuntza, haurtzaindegiko zerbitzua, gaur egungo bazkari bonuen tratamenduaren hobekuntza edo ekipamendu informatikoak erostea.

ULMA Taldeak hainbat gune (plus.ulma.com eta www.benify.es/ulma/) eta harremanetarako bide (902250300 eta 902107562 ulmaplus@ulma.com, ulma.plus@mercer.com) prestatu ditu ULMAko bazkide eta langile guztiei zuzenduta, informazioa zabaltzeko, zalantzak argitzeko edo ULMA Plus ordainsari malguko sistemarekin bat egiteko.

ULMA⁺

plus-



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Ehunduren lehiaketa Fatxada Aireztatuko Creaktive gamarako

ULMA Architectural Solutionseko Fatxada Aireztatuen Creaktive Gama berria bultzatzeko helburuarekin, ideia lehiaketa bat abiarazi zen, ehundura berri bat garatzeko erronka interesgarrian parte hartu nahi zuten negozioko bazkide guztiei irekita.

Erronka **ehundura berrietarako ideiak** aurkeztea izan da, ezaugarri hauekin:

- Sortzaileak
- Originalak
- Errealitatean egingarriak
- Gure lehiakideenak ez bezalakoak

Proposamenarekin lotu nahi zen helburuetako beste bat kolektiboak parte hartzea zen, eta bertan 20 bazkidek parte hartu zuten, gure enpresako negozio arlo eta eremu guztietakoak: fabrikazioa, produktu teknikariak, ordezkari komertzialak eta euskarrikoak (Mantentze Lanak, Erosketak, Informatika, Komunikazioa, I+G, Giza Baliabideak, Egingarria...).

20 bazkide horiek **guztira 73 proposamen** aurkeztu zituzten, eta hortik hautaketa bat egin zen, eta 20 egitura izan ziren sarirako pasatu zirenak.

Lehiaketa ebazteko **Agvar Arquitectura** etxeko bazkidea den **Jose Aguilar Garcia** arkitektoaren laguntza izan genuen. **Jose Aguilarrek**

ibilbide luzea eta interesgarria dauka irakaskuntzan (**Londres, Berkley, Kalifornia eta Deustua**), zein arlo profesionalen, eta **Lamela** bezalako maisu handiekin aritu da lankidetzan zenbait proiektu esanguratsutan:

- T4. Barajasko aireportuko terminal berria. Madril
- Real Madrilen kirol hiri berria. Madril
- Royal Academy of Music. Londres
- Kings Cross Train Station. Londres

Ehundura irabazleak gure materiala berezitzeko aukera guztiak islatzeko helburua dauka eta, Jose Aguilarren iritziz, "egitura adimenduna da, fatxadari dinamismoa ematen dioten bolumen jokoak konbinatzen dituena, eta irtenbidea ematen dio plaka berean koloreak konbinatzeko ezintasunari, bolumen horien itzalekin jokatzuz". Jose Aguilarrek egindako definizioaren arabera, "dotorea da, eta aukera asko ditu". Azkenean aukeratu den ehundura bi bazkidek proposatutako "Karbono zuntza" delakoa da: **GUSTAVO ROMERO eta ENEKO ERDOIZA**. Ehundura horretaz gain, **beste bost proposamen hautatu dira eta Creaktive Gama berrian sartuko dira**.

ULMA TALDEA

Raúl García, ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakari berria



Joan den ekainaren 20an ULMA Taldeak egindako Batzarrera joandako ordezkariak ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakari berria aukeratu zuten: Raúl García.

Raúl gaur egun ULMA C y E, S. Coop.eko lehendakaria da, eta azken hiru urteetan karguan jardun duen Irene Alberdi ordeztuko du. Raul 42 urteko oñatiarra da, ezkondua eta hiru seme-alaba ditu, 1997az geroztik dabil ULMAan gurekin, eta hainbat ardura postu izan ditu ULMA Constructionen. Raúl García ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko seigarren lehendakaria da, hauen ondoren: Irene Alberdi (2011–2014), Xabier Mugarza (2007–2011), Jose Luis Madinagoitia (2001–2007), Fran Etxaniz (1994–2001) eta Jose Antonio Ugarte (1987–1994).



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek Valentzia, Murtzia eta Bartzelonako CONSUM Banaketa Zentroak automatizatu ditu

ULMA Handling Systemsek ingeniari-tza logistikoan eskaintzen dituen soluzioei esker, banaketa kooperatibak sistema automatiko berriei hornitu ditu Valentziako eta Murtziako plataformak, eta aurki Bartzelonakoan egingo du. Sistema berriek bertako prozesuak hobetu dituzte eta kalitatearen estandarrak igo dituzte dendei ematen dizkien zerbitzu guztietan, guztia ala guztia produktibitate handieneko eta zero akatseko ingurune batean.

CONSUM kooperatibaren sarean 600 supermerkatu baino gehiago daude, Espainiako sei eskualdetan, eta 2007an jarri zuen martxan bere biltegi automatizatu, Valentziako Sillan dagoen plataforma integratuan.

2013. urtean garatu zuen ULMAk CONSUMek Murtziako Las Torras de Cotillasen duen banaketa plataformaren sistema logistikoa, zeina oso berritzailea den, bai ikuspegi kontzeptualari bai diseinuari dagokienez. Proiektuaren nobedade zehatza da biltegiatzeko sistemak ahalmena duela sarrerak eta irteerak kudeatzeko, bai 1/2 paletako karga unitateetan bai 1/4 paletetan eta europaletan.

Sistema hiru robotekin ekipaturik dago, eta robot horiek karga/deskarga operazioak egiten dituzte sarrera (harrera) eta

irteera (bidalketak) buruan jarritako garraiagailuetan. Gainera, robotak alboko irteerak automatikoki hornitzeko diseinatuta daude, eskariak prestatzeko prozesua egiteko.

Gaur egun, ULMA plataforma berri baten diseinua lantzen ari da, Bartzelonarako, eta bertan bi automatismo gehituko ditu, errotazio handirako eta txikirako.

CONSUMen logistika automatizatzeke egindako proiektuak plantako espazioa optimizatzeke beharretik etorri ziren, eta, helburu hori eraginkortasunez betetzeaz haratago, barruan erabateko iraultza ekarri dute, erroreak guztiz murriztu baitira, ia-ia desagertzera, eta produktibitatea nabarmen handitu baita, plataformako langileen baldintza ergonomikoak eta segurtasunekoak hobetzeaz gainera.

Aurreko instalazio automatikoen garapena ULMA Handling Systemseke ingeniari-tza taldearekin egin da, eta, Kooperatibako arduradunek beraiek aitortu dutenez, oso harreman ona izan dute enpresa honekin, bai instalazioaren prestasunagatik eta errendimenduagatik, "beti espero genuenaren gainetik", bai Kooperatiba kudeatzeko sistemarekin integratzeko egindako lanagatik.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak 2014. Urteko Konbentzio Komertziala egin du, orain arte ez bezalako asistentziarekin

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak Urteko Konbentzio Komertziala egin du ekainaren 18, 19 eta 20an, Taldearen Departamentu Zentraletan.

Edizio honetan **ULMAk 60 parte hartzaile baino gehiago bildu ditu, tartean banatzaileak eta bere agente komertzialak** izan direla, erabateko arrakasta izanik; gainera, Mitsubishi Portugalen duen banatzaile ofiziala den Euroleva konpainiako hainbat kide ere izan dira bertan.

Konbentzioa Oñatiko herrian egin da eta ekainaren 20an bukatu da, ostiralean, eta zati handi batean marketin estrategien gainean aritu da, jardunaldietako ardatz nagusizat hartuta organ merkatuaren gaineko zifren azterketa eta ULMAk bere lankideei eskaintzen dizkien zerbitzu berrien eta rentingerako produktu finantzario berri eta berritzaileen aurkezpena. Era berean, konbentzioa banatzaileen topagunea ere izan da, elkarren artean esperientziak partekatzea sustatzeko.

Horrez gain, ULMAk egun oso bat hartu du Mitsubishi 2014ko lehen sei hilekoan merkatuan jarri dituen azken berritasunak aurkezteko. Aztertutako modeloak bat baino gehiago izan badira ere, bereziki azpimarratzekoa izan da azken bi berritasunen aurkezpena:



ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricolaren HIGH TUNNEL berotegia

Merkatuan 35 urteko esperientzia duelarik, ULMA Agricolak produktuen aukera zabala du dagoeneko, eta hori zabaltzen eta bilakatzen ari da, eta etengabe sortzen diren beharretara egokitzen.

ULMA Agricolak eskari bakoitzaren beharretara ondoen egokitzen den irtenbidea eskaintzeko egiten du lan beti. Horretarako, instalazioak zein herrialdetan egiten diren eta bertako baldintza klimatikoak aztertzen dira, eta kasu askotan egitura bereziak garatzen dira, bezero bakoitzaren beharretara egokitzen direnak. Instalazio bakoitzean produktu bakarrak sortuz.

Azterketa horien ondorioz, eta klima tropikaleko bezeroek planteatutako beharrei erantzunez, batez ere Afrikako erdialdekoei, ULMA Agricolak tunel moduko berotegi modelo berri bat diseinatu du, HIGH TUNNEL izenekoa.

Produktuaren ezaugarri berezien artean aipatu daitezke oso produktu egokia dela klima tropikaleko instalazioetarako, laboreko kargarik gabe, eta haize, euri eta gaixotasunen aurrean babesa behar dutelarik.



ULMA Agricolaren produktu honen dimentsio estandarra 8 metro zabal eta 4 metro baino gehiagoko altuera dira, arkuaren arteko 3,5 metroko modulazioarekin, barrualdean lantzeko bolumen handiagoa eduki ahal izateko.

Goiko alde plastikoz estali ohi den arren, aurreko aldeak sare modukoak zein plastikozkoak izan daitezke, eta alboko aireztapen bilgarria eduki dezakete.

HIGH TUNNEL modelo berriak landatzeko espazio babestua eskaintzen du, ULMA Agricolak fabrikatzen dituen produktuen erresistentzia, sendotasuna, kalitatea eta garantia mantentzen du, landa komunitateentzako neurrisiko kostuarekin, eta, horrenbestez, garapen sozioekonomikoa eta elikagaien gaineko burujabetza sustatzen ditu.

EDIAZ EX 80V-eko orga elektriko serie berria, 2.5 eta 3.5 tona arteko karga ahalmena duten 4 gurpildun 5 modelok osatuta dagoena, eta orga atzeragarrien SENSIA belaunaldi berria, 1.4 eta 2.5

tona arteko karga ahalmena duten 11 modelo berrik osatutakoa; horietatik 2,0 tonako karga ahalmena duen modeloak karga 13.000 mm-ra arte altxatzeko gaitasuna du.

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak eskerrak eman nahi dizkie ekitaldira etorritako banatzaile ofizialei eta bere agente komertzialei, ez bakarrik bertan izan direlako, baizik eta markarekiko erakutsi duten leialtasunagatik ere, leialtasun horri esker produktua ezagutzen eta sare komertzial profesionala, hurbila eta konfiantzazkoa sendotzen erabat eraginkorrak izatea ahalbidetzen delako.



ULMA taldea, “.eus” domeinua estreinatzen “aitzindaria”



ULMA Taldea Euskal Herrian dagoeneko '.eus' domeinua aktibatuta duten 91 erakunde eta enpresen artean dago, www.ulma.eus, eta bertatik

euskarazko web edukietara sartu daiteke. ULMAk, ekimen "aitzindari horrekin, .eus domeinu berria sustatzen lagundu eta babesten du, euskal hizkuntza eta kultura

sarean ikusgarriagoa izan dadin.

Domeinua plazaratzeko bi fase egongo dira, bat eskusiboa eta bestea abiaraztekoa. Lehen fasean 91 webgune "aitzindarik" izango dituzte Interneteko helbideak sarean euskararen domeinuarekin.

Joan den apirilean aktibatu zen lehendabiziko webgunea .eus domeinuarekin, PuntuEus Fundazioak argitaratutako www.domeinuak.eus, eta bere helburua da Interneteko euskararen hizkuntz eta kultur komunitate zabalak domeinuaren beraren izen batekin izan dezan isla.




ULMA Construction Peru bere aldamioen segurtasunagatik errekonozitu dute

Volcan meatzaritzako enpresak ULMA Constructionek Perun duen filiala saritu du, obrako segurtasuna zaintzeko duen interesagatik eta "teknologia segurtasunerako euskarri" bihurtzeagatik. Peruko filiala aldamio eta enkofratuen liderra da, kalitateko materiala hornitzeagatik ez ezik, bezeroei eskaintzen dien zerbitzuagatik ere.

Volcan Compañía Minera SA meatzaritzako enpresa bat da, Volcan Compañía Minera SAK eta Empresa Minera Mahr Túnel SAK bat egin gero 1998an eratu zena.

Konpainiak mineralen esplorazio, esplotazio eta onuretan egiten du lan, bere kontu edo subsidiarioen bidez, eta erauzketa, kontzentrazio eta tratamenduaz arduratzen da. Produktu eta kontzentratu guztiak Volcanek merkaturatzen ditu.

Bi obra garrantzitsutan (Oxidoen planta, Cerro del Pascon, eta Alpamarca meatzaritza proiektua) langileek urte batean guztira 7 milioi ordu lan egin eta gero, ez da istripu hilgarri bakar bat ere gertatu, ULMA Constructionen aldamioak arduraz erabiltzearen ondorioz, horiei

esker langileek altueran erabateko segurtasunez lan egin ahal izan baitute, jarduera arrisku handikoa izanik ere.

ULMA Constructionek kalitate handiko materiala dauka, Europako kalitate arauen arabera homologatua eta ziurtatua, baina beharrezkoa da egoki erabiltzea. Bi obra horietarako BRIO aldamio norabide anitzekoa hornitu zen; hain zuzen ere, kontrolerako nazioarteko hainbat erakundek egiaztatu dute horren kalitatea eta segurtasuna.

Hasiera-hasieratik azpimarratu zen segurtasunaren gaia langileekin eta, horretarako, hitzaldiak eman zizkieten denei segurtasunari eta muntaketari buruz, haien lana ere ikuskatzen zen bitartean.

Errekonozimendu horrek berretsi egiten du ULMA Constructionek bere lanean eta zerbitzu integralean asmatzen duela. Berrito ere frogatu da enpresak detaile hori benetan zaintzen duela.

ULMA PIPING

ULMA Pipingek Spool fabrikazioa garatzen jarraitzen du



ULMA Pipingek lehendabiziko korrosioaren aurkako aleazio geruza duen Spool eskari handi bat lortu du. Spool bat neurrira egindako elementu

bat da, brida, ukondo eta tutuz osatua, eta jariakinak garraiatzeko erabiltzen da.

Eskuarki altzairuzko edo altzairu herdoilgaitzeko elementuekin fabrikatzen

da. Aitzitik, hainbat jariakin korrosibotarako, beharrezkoa da geruza berezi batez estaltzea, exijitutako bermea lortzeko. Estaltzeko geruza hori nikel portzentaje handia duen metalezko aleazio bat emanez lortzen da, soldadurako GTAW teknika konplexua erabiliz.

Horrelako proiektuetan espezifikazio eta homologazio maila oso altua izan ohi da. Izan ere, eskari horni dagokionez, munduan 4 enpresa homologatu daude lana egiteko (horietako bat ULMA Piping da). Horregatik, mugarri baten aurrean gaude Spool estalien merkatua irekitzeari dagokionez.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak etxeak e-commerceko esperientzia arrakastatsua aurkeztu du SIL 2014an

ULMA Orga Jasotzaileetako ordezkari piezen negozio unitateko zuzendaria den Eduardo Trojaola Ayastuik hizlari lanetan parte hartu zuen SIL e-commerce Jardunaldian, joan den ekainaren 3an, SIL 2014ko esparruaren barruan.

Logistikaren eta Mantentze Lanen Nazioarteko Erakusketa hamaseigarren ediziora iritsi da, eta Espainiako eta Mediterraneoko logistikaren urteko hitzordu moduan finkatu da, lehenengo edizioaz geroztik presente egon diren 4 jarduera ildo integratzearen ondorioz: logistikaren sektorearen topagunea izatea, nazioarteko proiektzioa izatea, hausnarketarako gune kualifikatua eta pribilegiatua izatea –ezagutza logistikoaren egiazko foroa– eta teknologia berrien alde egitea, sektore logistikoaren faktore estrategiko moduan.

e-logistika, Europako e-commercearen sektorerako funtsezko faktorea.

Zalantzarik gabe, e-commercea kanal honetan joera, estrategia eta teknologiarik berritzaileenak markatu eta markatzen dituen sektoreetakoa da.

Horregatik, ekitaldiaren antolatzailea den Bartzelonako Zona Frankoko El Consorcin pentsatu zen Erakusketako parte hartzaileentzat oso interesgarria izan zitekeela ezagutzea ULMA Orga Jasotzaileek organordezko piezen B2B hornitzaile moduan on-line lortutako esperientzia, nola ekin zitzaion e-commercea ezartzeko prozesuari, bi urteren buruan nolako emaitza onak lortu diren, eta epe laburrerako erronkak zein diren. Izan ere, galderak ugari dira, eta enpresa askok gai kritikoen inguruko erantzunak bilatzen dituzte, horien artean egonik beren banaketa lerroak suspertzea, bezeroekin etengabe harremanetan egotea eta beren produktuen kontsumitzaile potentzialak ezagutzea.

ULMArekin batera aurkeztutako kasu arrakastatsuen artean Vente Privée, Ula Box, Munich Sports, Pepe Jeans, Solo Stocks eta Amazon Spain aipatu behar lirateke, sektoreko beste enpresa ezagun batzuen artean.





ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricolak 35 urte bete ditu

ULMA Agricolaren jarduna 1979an hasi zen, eraikuntzaren sektorea krisi betean zegoelarik eta, neurri batean behintzat, krisi horren ondorio negatiboak arintzeko helburuarekin. Hasieran, ULMA Construcciones barruko negozio lerro bat izan zen, baina poliki-poliki eta denborarekin, negozio txiki hura bere merkatu kuota handituz joan zen, gaur egungo ULMA Agrícola negozioa bilakatu arte, zeinak 2007tik negozio independente gisan diharduen.

ULMA Agrícola Espainiako iparraldeko enpresa talderik handienetakoa den ULMA Taldeko kidea da; Taldeak 50 urte baino gehiagoko esperientzia du merkatuan, eta konpromiso argia dauka Berrikuntzarekin, Enpleguarekin eta Balio

Erantsiarekin.

Hastapenetan, ULMA Agrícola tunel erako berotegi egiturak edo instalazio oso bakunak fabrikatzen eta hornitzen zentratzen zen, baina gaur egun soluzio integralak eskaintzen ditu nazioartean, ingeniari maila altuarekin.

ULMA Agricolak, Bezeroa Zerbitzatzeko printzipioarekiko zintzo, beti egiten du lan eskari bakoitzaren beharretara ondoen egokitzen zaion irtenbidea eskaintzeko. Horretarako, I+G+B departamentu oso kualifikatua dauka, ase beharreko premiak zehatz aztertzen dituena, aukera sorta handia eskainiz bere produktu estandarren aukeraren barruan; sorta horretan oinarrituta, bateko eta besteko elementu

estrukturalak garatu daitezke, egiturari moldagarritasun handiagoa emateko eta, ondorioz, merkatu nitxo desberdinei erantzun ahal izateko.

Bestalde, eta laborantza intentsiboaren sektoreak izan duen eraldaketa sakona dela eta, ULMA Agricolaren negozioa merkatu nazionalean zentratzetik nazioartekoagoa den ikuspegi bat izatera igaro da. Hamarkada bat baino gehiago igaro da ULMA Agricolak Mexikoko filiala ezarri zuenetik, eta bertatik zerbitzu hurbilagoa ematen du, batez ere Erdialdeko eta Hego Amerikarako.

ULMA Agricolak gorabidean dauden merkatu berriak eta herrialdeek beren ezaugarrien arabera dauzkaten beharrak aztertzen jarraitzen du, soluzio eta produktu berriak diseinatzeko eta garatzeko. Mundu zabalean duen esperientzia handiak eta 50 herrialde baino gehiagotan egindako instalazioak dira bere egikera egokiaren abala.

35 urteko historian zehar negozioan lan egin duen giza talde osoaren ahaleginari esker, ULMA Agrícola, gaur egun, etorkizunerako garapen handiko proiektu handia dugu, merkatuaren beharrei aurrea hartuko dieten soluzioak garatzeko aski ongi prestatuta dagoen talde gazte eta ilusioz beteriko batek osatua.

ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek EITBko Teknopolis programaren bisita jaso du



ZABALKUNDE ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOKO PROGRAMA EZAGUNAK ULMA PACKAGINGEN PLANTA BISITATUZUEN OILASKORAKO QUADPACK APLIKAZIOARI BURUZKO INTERESAREKIN

Elhuyarreko Guillermo Roak Flow Pack lerroko Product Managerra den Josu Garcia elkarrizketatu zuen, komunikabide askotan hainbesteko jakin-mina eragina duen oilasko osorako quadpack aplikazioari buruz.

Programaren interesa hainbat online gunetan argitaratutako albiste eta artikuluen ondorioz sortu zen, izan ere, horietan oilasko osoa enbasatzera zuzendutako enbase berria aipatzen zen; hain zuzen ere, ASDA supermerkatu kate

britaniarrak orain dela gutxi merkaturatu du enbasea, zeinak labean sartzeko film bat daukan, platera errazago prestatzeko.

Interesik handiena eragin zuten puntuetako bat enbasatzeko joerei buruzkoa izan zen; joera horiek batez ere Britainia handian ezartzen dira, bertako kontsumo ohiturak beti urrats bat aurrerago joaten baitira. Bertako kontsumitzaileek aurrez prestatutako produktuak edo erraz prestatzeko eta zuzenean manipulatu beharrik gabeko erdiprestatutakoak nahiago dituzte.

Espero dugu ULMA Packagingek etorkizunean Teknopolisen interesa pizten jarraitzea, enbasatzeko proposamen berrien bitartez.

ULMA INOXTRUCK

Milakotan pentsatzen

2015eko amaierarako mila unitatera iristeko helburuari begira, gaur egun ULMA Inoxttruckek dagoeneko saldatuko 500 makinaren barrera gainditu du, horietatik %40 nazioarteko merkatukoak izanik. Aurreko 2013. urtearekin alderatuta urtearen hasieran %200eko hazkunde garrantzitsua bazegoen ere, azken helburua lortzeko bidean funtsezkoa da Frantziako eta Alemaniako merkatuetan indartsuago sartzea.

Area Managerretako baten lehenatsunezko dedikazioa Frantziako egungo banatzailea indartzera zuzentzeko ekimena martxan da dagoeneko. Alemaniako dimentsioa eta presentzia herrialdeko hego-mendebaldean baino ez dugula kontuan hartuta, mundu mailan mantentze lanen inguruan egiten den azokan parte hartu dugu lehendabiziko aldiz, joan den maiatzean: Hannoverreko CEMAT azoka. Azokan egin genituen 150 kontaktu baino gehiagotik Alemaniako hainbat herrialdeetako 25 enpresak interesa erakutsi zuten gure produktua beren eragin eremuan banatzeko.

Datozen hilabeteetan enpresa horietako batzuekin banaketarako akordioak lortzea espero dugu, Alemaniako lurraldearen zati batera iristeko.

Horrez gain, CEMATEk Asiako eta Ozeaniako herrialdeetan lankidetzaz hitzarmenak ezartzeko balio izan digu (Korea, Thailandia, Australia, etab.), baita Ekialde Hurbilekoekin ere (Israel, Arabiar Emirerri Batuak.), izan ere, orain arte horietan ez geneukan inolako ordezkariarik.



ULMA TALDEA

ULMA Taldean Osasuna Sustatzeko lanaren errekonozimendua, GOSASUN zigiluaren bidez

“Osasunean berrikuntza egitea, guztion zeregina” izenburupean, joan den maiatzean Innobasquek Deustuko Unibertsitatearen Donostiako Campusean antolatutako jardunaldiak berrikuntza eta praktika onak ezagutarazteko balio izan zuten, GOSASUN zigilua merezi duten ohitura osasungarrien sustapenari buruz.

ULMA Taldeko Laneko Seguratasun eta Osasunaren koordinatzailea den Iñaki Igarzabalek **“Izan osasuntsu”** proiektuaren ardatzak helarazi zizkien bertaraturakoei: ULMA Taldearen barruan ariketa fisikoaren sustapena, ingurune psikosozial osasungarria bermatzearren garrantzia, osasun laguntza eta ohitura osasungarrien sustapena.

GOSASUN Zigiluaren bidez ULMA Taldean errekonozitu den lana, finean, **osasun programak garatu eta egiazki ezartzearen emaitza da, eta hartzaileen konpromisoa dauka laneko osasuna**



hobetzeko helburuak bere egiteko, trebetasun eta ardura pertsonalak eta kolektiboak garatuz osasun, seguratasun, autozainketa eta garapen pertsonalaren kudeaketari dagokionez.

ULMA Taldeak Kaiku Benecolek kolesterola murrizteko duen eraginkortasunari buruzko azterketa batean parte hartuko du

“Izan Osasuntsu” proiektuaren barruan, ohitura osasungarriak sustatzearren esparruan, azterketa bat egingo da estanol begetaleko esterrek kolesterolaren murrizketan duten eraginkortasuna ebaluatzeko. Azterketa bi hilabetez egingo da, ULMA Taldeko 75 pertsona boluntarioren parte hartzeari esker. Azterketan parte hartzeko baldintzak honako hauek dira: 200 baino gehiagoko kolesterol maila izatea, hori murrizteko inolako tratamendurik ez hartzea eta inolako patologia kronikorik ez izatea.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Fatxada Aireztatuaren lerroak nazioarteko prozesua sendotu du, 7 banaketa akordio berri eginez

ULMA Architectural Solutionsek 7 lankidetzaz hitzarmen izenpetu berri ditu Fatxada Aireztatuak banatzeko Mexikon, Kolonbian, Txilen, Perun, Errumanian, Kroazian eta Italian. Bertako banatzaileekin sinatutako hitzarmenen bitartez, ULMA Architectural Solutionsek Latinoamerikan eta Europan hedatzeko prozesuarekin jarraitzen du, Fatxada Aireztatuaren lerroaren bitartez.

Internazionalizazio politikari esker, ULMA Architectural Solutionsek gero eta presentzia handiagoa du Frantzia, Portugal,

Brasil, eta Mexikoko eta Italiako 5 filialen bitartez; gainera, banatzaile sare zabala du mundu osoan.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ArcelorMittal Liberia proiektua

ULMA Conveyorrek arrabol eta euskarriz hornitzen du Duro Felguera Plantas Industrialeseko ingeniari-tza, burdin mineral kontzentratuko planta baten proiekturako eta Arcelor Mittalen Buchanango portuko instalazioen hobekuntzarako.

ArcelorMittal, munduko altzairu fabrikatzailearik handiena, hasi da dagoeneko Liberiatik, 14 urtez gerra zibilean egon ondoren suntsitutako herritik, burdin minerala esportatzen. Laster urtean 4 milioi tona burdina esportatzea espero da.

AMEC ingeniari-tza nagusia 1,2 bilioi USD-ko proiektua garatzen ari da, zeinaren bitartez Yekepakoko meategia eta kontzentratu planta hobetu eta Buchanango portuarekin lotzeko 240 km-ko trenbidea egin nahi den.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA drainatze kanalak Beira Rio Brasil estadioan: 2014ko futboleko mundialaren egoitza

ULMA Architectural Solutionsek Drainatze Kanalak instalatu ditu **Beira-Rio estadioan**. Brasilgo Porto Alegreko hirian dagoen futbol estadioa da, Guaiba ibaiaren ertzean. Internacional ekipoaren estadioa da, eta 58.306 ikuslerentzako lekua dauka. Brasilen jokatu den **2014ko Munduko Futbol Koparen egoitzetako bat izan da**.

Proiektu honetan **U150 eta SELF 200 kanalak** instalatu dira, biak altzairu galvanizatuzko saretarekin eta nerbi-dun diseinuarekin. Kanal horiek **kirol instalazioetarako** ezin hobeak dira, horietan ez baita eskatzen karga edo ibilgailu astunen pisua jasateko ahalmen handiegia edukitzea. Erabilera polibalente eta altuera konstanteko kanalak dira,

oso praktikoak luzeegiak ez diren kanalizazio lerroetan. Andrade Gutierrez eraikuntza enpresak gure drainatze sistema aukeratu du hainbat arrazoirengatik, baina eskaini zaien soluzio tekniko eta gauzatzeko azkartasuna izan dira pisu handieneko arrazoiak.



ULMA TALDEA

Elkartasuna Opari Txartel moduan

Joan den otsailean ULMA Taldeak Unicef-ek Opari Urdinen kanpainaren baitan bultzatutako Txartel Solidarioen ekimenarekin egin zuen bat. Txartel Solidarioekin enpresak edozein opari edo detaile egiteko erabiltzen den dirua gaizkien dauden haurren bizi kalitatea hobetzen lagunduko duen produktu bat erosteko erabiliko da. Horrenbestez, keinu horren bitartez, ULMA Taldeak eta "opari solidarioa" jasotzen duen pertsonak esne terapeutikoa eta polioaren eta gorrinaren aurkako txertoak erosten lagunduko dute munduko edozein lekutako haurrentzat.

Txartel solidarioen modalitate horrekin Nazio Batuen Unicef bulegoak Gabonetako postalen urtarokotasun laburra gainditzeko, eta horretan ere ULMA Taldeak bere hondar aletxoak jartzeko, haurren eskubideak betetzea bermatzeko asmoarekin.





ULMA PIPING

ULMA Pipingek API (The American Petroleum Institute) eta ISO (International Organization for Standardization) erakundeen homologazioa eskuratu du briden diseinu eta kalkulari dagokionez

ULMA Pipingek 3 urte inguru daramatza arauetatik kanpo dauden bridak diseinatzeko metodo eta teknologia berrien gainean prestakuntza jasotzen eta horiek aplikatzen. Brida horiei brida ez-estandar esaten zaie, eta ezaugarri bereziak dituzte: izan ere, izango duten aplikazio zehatzaren lan baldintzetarako bereziki diseinatuta egon behar dira. Hauek izaten dira ezaugarri ez-estandar ohikoenak:

- Hodien diametro handiak. ULMAk 102" hazbeteko bridak diseinatu ditu dagoeneko. Horrek esan nahi du hodiekin 2,6 metroko diametroa dutela barrualdean.
- Presio handiak: Oso presio handiko aplikazioetarako bridak.
- Beste ezaugarri batzuk: Hodien neurri ez normalizatuak, kanpoko indar handiak, etab.

Bridak diseinatu eta balioztatzeko, ezinbestekoa da kalkuluak egitea, eta kalkulu horiek formulak aplikatuz edo elementu finituen teknika aurreratuagoak erabiliz egin daitezke. Kalkulu

horien bitartez hau lortzen da:

1. Egiaztatu egiten da bridak eta torlojuak egoki diseinatuta daudela, hau da, instalatuko diren lekuan lanean ari garela sortzen diren indarrak eta bertan muntatzeko egin beharrekoak jasateko modukoak direla.
2. Ziurtatu egiten da brida egoki fabrikatuta eta instalatuta badago ez dela ihesik egongo lotu eta gero.

Otsailean, eta lehenengo aldiz, ULMAk API (The American Petroleum Institute) eta ISO (International Organization for Standardization) erakundeen homologazioa eskuratu du briden diseinu eta kalkulari dagokionez.

ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricolak arrain haztegi bat egin du Islandian



ULMA Agricolak esperientzia zabala du akuikulturarako egiturak instalatzen. Soluzio bereziak garatu ditu merkatu horretarako, esaterako, honelako proiektuetan hezetasun eta gatz maila handiari lotuta sortzen diren premia zorrotzei erantzuteko modukoak. Islandian egin den azken instalazioan egitura diseinatu eta muntatzeko oso kontuan hartu beharreko beste faktore bat klimatologia izan da.

Instalazioa bereziki erreboiloen hazkuntza intentsiborako erabiliko da, eta 3 moduluk osatuta dago, erreboiloen hazkuntza fasearen arabera berezituta. Lehen modulua Pregrowingerako izango da eta 7 nabe ditu, eta beste bi moduluak, berriz, Ongrowingerako izango dira, eta 9 eta 12 nabe dituzte, hurrenez hurren.

Berotegiaren egitura osoa modulu bakoitzaren barruan egongo diren piszinen premietara egokitu da, eta itzala egiteko sare estalita egongo da erabat, inguruan zein gainean.



“Eredu Kooperatiboa oraingo eta etorkizuneko enpresa eredua da. Bazkide langile guztiek partekatzen duten enpresa eredua da”. MAIXABEL KORTABARRIA. ULMA AGRICOLAko lehendakaria

« Egun dugun testuinguru zail honetan, zeinean badirudien aurrera egiteko giltzarrietako bat elkartasuna izango dela, zure iritziz, kolektibo moduan kohesionatuta gaude, eta Negozioarekin eta Taldearekin konprometituta?

Gure eredu kooperatiboak pertsonak eta elkartasuna oinarritzat dituela abiapuntu hartuta, ULMA

Taldeak hainbat tresna ditu egoera zailen eta krisi ekonomikoko egoerei aurre egiteko, esaterako lansariak doitzea (ordainsariak edo lan aurrerakinak murriztuz edo itzulkin kooperatiboak eta interesak kenduz) edo ordainsarien elkartasun fondoa eta enplegu mahaia erabiltzea, eta horiek denak aplikatzen ari dira, negozioetan erabiltzeko premia dagoen heinean. Hartu izan ditugun neurri horiek guztiak bazkidearen

erantzukizunaren eta konpromisoaren isla dira.

Konpromisoaren eta kohesioaren beste adibide bat da gaur egun ULMA Taldean sobera dauden langile guztiak birkokatuta daudela. Hortaz, nire ustez, konpromisoa egon badago, eta kanpokoek antzematen dute gehien konpromiso hori; halere, dena hobetu daiteke.



« Zure ustez, Kooperatibetik/ Negozioetatik eta Taldetik zer tresna hauspotu behar dira inplikazio hori indartzeko?

Egia da, enpresek pertsona motibatuak behar dituzte, enpresa proiektuan inplikatzeko diren pertsonak, baina joan den urtearen amaieran erakunde kulturari buruz egin genuen inkestaren emaitzen arabera ULMA Agricolan landu beharreko gaia lidergoa da.

Ulertuta lidergoak, hau da, zure jendea eta lantaldea gidatzeko duzun moduak bezeroei ematen zaien zerbitzuaren hobekuntzarekin eta zure negozioen emaitzekin zerikusia duela modu erabakigarrian. Lehiakorra izateko, enpresak duen ezagutza kudeatzen jakin behar da (zer dakigun egiten eta nola dakigun egiten), eta ezagutza hori erakundearen partaide diren pertsonengan dago.

« Gure Negozioek erronka berriei heldu eta testuinguru global batean moldatu behar dute; formula kooperatiboa hori lortzeko modurik onena dela uste duzu? Zure iritziz, zein dira bultzatu beharko genukeen ereduaren indarguneak?

Nire ustez, kooperatiba oraingo zein etorkizuneko enpresa eredu bat da.

Bazkide langile guztiek partekatzen duten enpresa proiektua dela abiapuntutzat hartuta, bazkide langile

guztiak dira, halaber, proiektu horren protagonista (gobernu organoak aukeratzen dituzte eta kudeaketan parte hartzen dute). Horrenbestez, eredu honen indarra bazkidearengan berarengan datza.



Lehiakorra izateko, enpresak duen ezagutza kudeatzen jakin behar da (zer dakigun egiten eta nola dakigun egiten), eta ezagutza hori erakundearen partaide diren pertsonengan dago.

« Uste duzu kooperatibok behar besteko arintasuna dugula egungoa bezain ingurune aldakorrean erreakzionatzeko? Hobetzeko zer neurri edo tresna ezarri litezke?

Argi dago bizi garen mundu aldakor honetan arrakasta lortzeko eta bizirik irauteko ezinbestekoa dela azkarrak eta malguak izatea, ingurunera egokitzeke: Gure jarduerak merkatuen arabera dimentsionatu behar ditugu lehiakorrak izateko; nazioartera zabaldu eta berritu behar dugu jarduera berriak bultzatzeko, etorkizuneko sektoreetan eta une honetan gauden sektoreetan posizioa sendoagoa lortzeko. 2008az geroztik, krisiaren hasiera urte horretan jartzen baitugu, plantilla berregituratu dugu, dela plantilla murriztuta dela nazioarteko merkatuetara bideratuta, eta une honetan fakturazioaren %70 kanpoan egiten dugu; beraz, egoera berrira egokitzen saiatzen ari gara, baina, halere, badaukagu non hobetu lehiakorrak izateko.

« ULMA Taldeak, xede Soziala duen taldea den heinean, Fundazio bat dauka. Nola uste duzu ULMA Fundazioaren proiektua sustatu eta bultzatu genezakeela?

Egia esan, ez daukat erantzunik galdera horretarako. Fundazioaren helburuak argiak dira eta, nire ustez, horiek lortzeko egin ditugun ekintzak egokiak izan dira, baina, halere, egunerokotasuna zaila da, eta horrek eragotzi egiten dit modu egokian nola bultzatu pentsatzea.

ULMA Handling Systems osasunaren sektorean sartu da



Osasun sektorera bideratutako logistika gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ULMA Handling Systemsen, eta gaur egun osasun sektorera bideratutako ingeniartzaren eta teknologia berrien konbinazioa merkatuko nitxo interesgarria da.



Testuinguru horretan, negozio lerro berri bat jaio da osasun sektorerara bideratuta, nagusiki ospitale barrurako soluzio logistikoak eskaintzeko asmoarekin. Gaur egun, lankidetzak hitzarmenak ditu hainbat enpresarekin, esaterako Oppent, Pharmathek eta Omnicell enprekin, eta horiekin batera sistema pneumatikoak/AGVak eta dispensadore robotizatuak eskaintzen dituzte, hurrenez hurren, Latinoamerikako merkaturako.

Negozio lerroko Azterketa eta Eskaintzen arduradun Aitor Elorzak adierazi duenez, "osasun sektoreak gaur egun duen erronka nagusia da sistema eraginkor bat aurkitzea ospitaleetan materialak gordetzeko eta kudeatzeko, kontuan hartuta produktuaren segurtasuna eta trazabilitatea, funtsezko parametroak baitira".

Azken urteetan hartutako esperientziak eta eskuratutako ezagutzek beren kontzeptualizazio eta diseinuagatik erreferente diren hainbat proiektu garatzea ekarri dute.

Txileko Santiagon dagoen La Florida Ospitalerako garatu den proiektua mugari garrantzitsua izan da bai ULMARako bai Txileko herrialderako, Txilen erabat automatizatuta dagoen lehen ospitalea izango baita.

Proiektuak biltegitratze automatikorako

sistema bat dauka, ULMA etxeko 2 karrusel horizontalek kudeatuta, eta biltegien gordetakoak kudeatzeko sistema bat ere badu, baita Pick to Light Systems gailuen bitartez eskariak multzoka prestatzeko sistema bat ere.

Automatizazio logistikoari esker posible izango da botiken trazabilitate osoa kudeatzea: ospitalearen biltegien jasotzen den unetik pazienteari eman eta hark kontsumitu arteraino.

Gainera, azpimarratzekoa da Kolonbiako Imbanaco Zentro Medikorako proiektuaren garapena, ULMAk ospitaleetako jarduera logistikorako izango duen erreferentzia garrantzitsua izango baita. Proiektu logistikoak bi karrusel horizontal eta karrusel bertikal bat edukiko ditu. Horrez gain, armairuak edukiko ditu medikamentuak automatikoki emateko, baita Pick to Light gailuak eta IK Health softwarea ere.

Testuinguru horretan sartzen da ULMA Handling Systemsen filial berria Txileko Santiagon, osasun sektorerara bideratutako azterlanetarako eta proiektuen garapenerako izango dena. Filialean osasunaren sektorean ibilbide ezaguna duten profesionalak egingo dute lan, eta profesional horiek Zentralaren laguntza izango dute sektorerara bideratutako proiektuak zuzentzeko eta garatzeko.

"Logistika sanitarioa: erronkak eta joera berriak"

ULMA Handling Systemsek, GLOBOPE Research and Consulting aholkularitza eta ikerketa enpresarekin elkarlanean, "Logistika sanitarioa: erronkak eta joera berriak" ("Logística Sanitaria: retos y nuevas tendencias") izeneko liburua argitaratu du, materialen prozesu logistikoaren errepaso zabala, eguneratua eta zehatza egiteko asmoarekin, gaur egun egiten diren praktika logistikoen adibide ugari eskainita.

Liburua jarraitzen errazak diren kapitulutan banatuta dago, eta bertan materialek hornitzailearengandik pazientearengana heldu arteko fluxuaren faseak aztertzen dira, baita fluxu horri lotutako informazioa eta erosketaren prozesuaren kudeaketa ere. Era berean, ospitaleetako logistika kudeatzeko eredu batzuk berrikusten ditu, eskaerak aurreikusteko teknikak, stockak kudeatzeko estrategiak, biltegien lokalizazioa, dimentsionamendua eta diseinua, materialen fluxuari lotutako azpiprozesuak (harrera, kokapena, eskariak prestatzea, etab.), berriz hornitzea, eta alderantzizko fluxua ere bai.

Ontziratze lerroen eta sistemen automatizazioa

ULMA Packagingen eskutik, Interpacken

ULMAk soluzio osatuak eta integratuak aurkeztu zituen, hasierako enbasetik bigarren mailakoraino, produktuen karga automatikoa, enbasatzeko hainbat teknologia, ikusmen eta kontrol sistemak eta kokapen eta paletizatze automatikoa konbinatuz.

ULMAk bere nobedadeak aurkeztu zituen munduko Packagingaren azokarik handienean: soluzio osatuak eta integratuak, hasierako enbasetik bigarren mailakoraino eta paletizatze automatikoraino.

la 700 m²-ko stand batean hamar instalazio baino gehiago erakutsi ziren, hainbat ezaugarri komunekin: enbasatzeko prozesu arinak, erraz erabiltzekoak, fidagarriak eta automatizatuak.

Bisitariak ere portatu ziren, eta horren erakuslea da ULMA Packagingek aurkeztu zituen nobedadeak eta soluzioak ezagutzeko inguratu zen jendearen kalitatea zein kopurua.

| Automatizazioa

Standean hainbat lerro automatiko aurkeztu ziren, enbasatzeko makinak elikadura sistema automatikoekin eta lerro amaierakoekin integratuta, horren barruan sartuta ikuskapen eta kokapen sistemak, bai plastikozko kaxan bai kartoizkoan.

Flow pack makina biltzaile baterako karga nabarmendu daiteke, fabrikazio propioa bi robotek twin zelula baten bitartez; robotek lan eremu komunitan lan egiten dute, eta ondoren U10 robot batez Rama zorroartzeko makina automatiko bat elikatzen.

Soluzio osatuak eta automatizatuak eskaintzeko kontzeptuarekin bat eginda,



bete etxe batzuekin lankidetzan egindako hainbat instalazio osatu erakutsi ziren.

- TFS 500 makina termoformatzaile higienizagarria, Elcat kargagailu automatikoarekin, xerratutako produktuetarako. Makina termoformatzaileak albotik ateratzen ditu moldeak, eta formatuak aldatzea eragiketa arin eta errazak izatea lortzen du.
- VTI 540 makina biltzailea Marel multiburuarekin, IQF oilasko zatietarako, zipper bidez berriro itxi daitekeen enbasea egiteko.

| Abiadura handiko flow packa

Txokolaterearen eta konfiteen sektorearen barruan, FR 500 abiadura handiko lerroa ikusi ahal izan zen, elementu huez osatua: errenkaden banatzailea, orientazio modulua, multizintak eta makina biltzailea bera, 700 ppm-ra arteko ahalmenarekin.

| Berriro itxi daitekeen quadpacka gailuetarako

Beste nobedadeetako bat flow pack erako quadpack enbasea izan zen, luzetarako lau soldadura gehigarriekin,



zorro baten itxura imitatzen duena; berriro itxi ahal izateko sistema malgua dauka, formatu eta ebaketa profil desberdinetara erraz egokitu daitekeena.

| Enbasatzeko lerro automatikoa erretilu termozigilatuen kokapen automatikoarekin

Erretiluak zigilatu eta gero, metalen eta zigiluaren kontrola egiten zen, robot baten bidez kartoizko kaxetan automatikoki kokatzeko zelula batean amaitzeko.

| TSA 680 eraginkortasun handiko termozigilatzailea

Termozigilatzailearen modelo honetan hainbat ezaugarri elakrzen dira makina berean, eta horregatik termozigilatze oso kontuan hartu beharreko soluzioa da:

- Higienizagarritasun maila handia.
- Produktibitatea: 20 ziklo/min-ra arte (80 ppm 1523 erretiluarekin) ebaketa/zigilaketan.
- Orduaren kostua %84 murriztea modelo pneumatiko baliokideekin alderatuta.
- Lan egiteko eta formatuak aldatzeko erraztasuna.

| Skin enbaseak diseinu higienizagarriko termoformatzaileekin

TFS termoformatzaile higienizagarrien gama zabalaren barruan, prestazio maila desberdinetako bi modelo erakutsi ziren: TFS 500 eta TFS 407.

Azken modelo hori bereziki egokituta dago skin enbaseak egiteko, eta haragi produktuak, esnekiak, arraina, mariskoa eta prestatutako janaria oinarri zurrunean enbasatzeko diseinatuta dauden termoformatzaileen familia bateko parte da: produktuaren formari egokitzen zaion film batez estaltzen da, eta produktuaren itxura nabarmentzen du eta bigarren azal baten tentsioa ematen du.

| Berriro ixteko enbaseak

Berriro ixteko hiru enbase mota ikusi ahalizan ziren, sistema desberdinetakoak: etiketa itsasgarria, zipper eta erabili eta botatzeko tira itsasgarria.

Atal honetan, bisitariak interes handia erakutsi zuten azken modeloari buruz: xerratutako produktuetarako Artic flow pack biltzaile batean egindako enbaseei gehitzen zaie.

>> ULMA Packaging standaren ikuspegia Interpacken.

interpack
PROCESSES AND PACKAGING
LEADING TRADE FAIR

ULMA Interpacken:

Munduko packaging azokarik handiena da.

Ia 700m²-ko stand bat.

ULMA Packagingen hamar instalazio baino gehiago erakusgai.

Hartutako bisiten kopuru eta kalitate handia.

ULMA Taldearen Laneko Segurtasun eta Osasunaren Arloa



Gaur egun, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Arloko arduraduna den Iñaki Igarzabalek, Lan medikua den Anabel Luengok, Enpresako EUDak diren Maite Elguerok eta Mirari Malbadik eta LAPeko teknikaria den Aitziber Camposek osatzen dute .

Taldeko kooperatibako guztietan garatzen du bere eguneroko jarduna, eta lau ataletan banatu liteke: Laneko Arriskuen Prebentzioa, Osasunaren Zaintza, Osasun Laguntza eta Osasunaren Sustapena.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren atalean, kooperatibei aholkularitza ematen zaie segurtasun eta osasun batzordeen bidez, prebentziari buruzko egoeraren txostenak egiten dira eta, bereziki, prebentzioko teknikariek elkarlana egiten da arriskuak ebaluatzeko, prebentzio neurriak hartzeko eta arriskuak kontrolatzeko. Datozen urteetarako maila honetan Taldeak dituen erronkak hauek dira: eremu honen lidergo maila handitzea, kolektibo guztia sensibilizatzea eta inplikatzeko Laneko Arriskuen Prebentzioan denak ezinbesteko laguntzaile izan daitezen. Halaber, etsenpluan eta konfiantzan oinarritutako prebentzio kultura bat ezartzea.

Osasunaren Zaintzaren atalari dagokionez, kolektibo osoaren zaintza indibiduala eta kolektiboa egiten dugu, azterketa medikoak eginez, osasunari buruzko inkestak, kooperatibarentzako ondorioak ateraz, prebentzio neurriak ezarriz eta lanari lotutako gaixotasunak aztertuz.

Kontsulta medikoa kooperatiba guztietan, gaixotasun kronikoen jarraipena, urgentzia medikoetan laguntzea, aldizkako analisiak eta osasunari buruzko informazioa eta prestakuntza dira **Osasun Laguntzaren** atalaren zatirik handiena. Jarri ditugun helburuetako bat da estaldura atzerriratuta dauden bazkide eta langileengana zabaltzea.

Osasunaren Sustapenaren atalean, berriz, proiektu berri bati ekin zaio, lehenago egiten ziren ekintzak elkartzen dituen – Izan osasuntsu. Proiektua ezinbesteko beharra da etorkizunari aurre egiteko eta osasuna enpresaren helburu estrategiko moduan hartu dadin. Izan Osasuntsu ekimenaren helburu nagusia ULMA Taldeko bazkideen osasuna hobetzea da, trebetasun eta erantzukizun pertsonalen zein kolektiboan bitartez, osasunaren kudeaketari, segurtasunari, autozainketari eta garapen pertsonalari lotuta.

Arlo honetan garatzen diren ekintzen jomuga dira ariketa fisikoa sustatzea, ingurune psikosoziala hobetzea, ohitura osasungarriak bultzatzea (hidratazioa, nutrizioa, mendekotasunak gainditzea...), gune kardio-babestuak eta ingurune sozialerako ekintzak.

Laneko Segurtasun eta osasunaren Arloak Taldeko Segurtasun eta Osasun Batzordean eta Prebentzioko Teknikarien Batzordean parte hartzen du.



IÑAKI IGARZABAL
Laneko Segurtasun eta Osasunaren Arloko arduraduna

Talde mailan bi batzordetan parte hartzen da: batetik, Taldeko Segurtasun eta Osasun Batzordea kooperatiba bakoitzeko prebentzioko arduradunek osatzen dute, eta bere zereginak dira estrategia komunak ezartzea eta Organo Sozialak eta Zuzendaritza Kontseilua aholkatzea laneko arriskuei buruz; eta, bestetik, Laneko Arriskuen Prebentziorako teknikariek osatzen duten Teknikarien Batzordea, irizpide teknikoak bateratzeko, tresnak garatzeko eta praktika onak komunikatzeko sortua. Horrez gain, ULMA Taldearen ordezkari itzulia egiten da Osarten bezalako erakundeetan.

ESKULANEN LEHIAKETA BERRIA

Eskulanen lehiaketa BERRIA bazkide eta langileen seme-alabentzat

ULMAN baliabideak birziklatzearen eta berrerabiltzearen alde egiten dugu. Arrazoi hori dela eta, ULMA Taldeak lehenengo eskulanen lehiaketa antolatu du, bazkideen eta langileen seme-alabentzat, orain arte egiten zen haurren pintura lehiaketaren ordean.

Helburu nagusia da haurrek kontzientzia hartzea egunero erabiltzen ditugun eta normalean erabili eta gero botatzen ditugun objektuei bigarren bizitza bat eman dakiekeela: edalontziak, pintzak, botilak, tapoiak, etab.

OINARRIAK:

PARTE HARTZAILEAK: ULMAko bazkide eta langileen seme-alaba guztiak parte hartu ahal izango dute. Parte hartzaileak bi mailatan banatuko dira: 6 urtera arteko haurrak, eta 7tik 11ra bitartekoak.

AURKEZPENA: Lanak ULMAko Departamentu Zentraletara bidali behar dira: Garagaltza auzoa 51, 20560 OÑATI (Gipuzkoa).

*Delegazioetan erabili barneko posta edo, bestela, posta arrunta

DATA: Lanak irailaren 26aren aurretik entregatu behar dira.

SARI BANAKETA: Urriak 16, osteguna, 18:00etan.


LANEN ERAKUSKETA: Jasotako lan guztiak sariak banatzeko ekitaldian erakutsiko dira, eta ondoren sortzaileei itzuliko zaizkie. Sariak banatu aurretik, lanen argazkiak egingo dira eta <http://portalde.ulma.com> eta www.begira.ulma.com guneetan erakutsiko dira.

SARIAK: Txirringa bat kategoria bakoitzean.

*Parte hartzaile guztiak oparitxo bat jasoko dute parte hartzeagatik.



Asier Oyarbide ULMA Pipingeko Gerentearen bertsoa, orain arte bertako lehendakari izan den Joxe Arregiri eskainia:



ERRETIROAK: 2014ko apirilak 1 - abuztuak 31

Braulio
López García



Juan Francisco
Peralta Carrasco



Juan Manuel
Doval Colino



José Ángel
Urkiá Goitia



Julio
Larrañaga Azkarreta



Justo
Ros Olalde



Itziar
Urkiá Agirre



Ignacio
Mendi Preciado



Luis
Urcelay Ayastuy



Luis
Maestre Escudero



Miguel Ángel
Maiztegi Arrue

Juan José
Arejolaleibar Aracama

**Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu!
Zorionak**

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;
Beti bezala, iradokizunetarako Postontzia
ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak
bidaltzeko.

ULMA Taldea. Departamendu Zentralak.
Garagaltza Auzoa 51 - 22 P.K.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref. Begira. Emaila: begira@ulma.com

ULMA GARA!

Eslogan horrekin ULMAn lan egiten dugun guztiok eta bakoitza gure Taldeko parte garela sinbolizatu nahi dugu.

Hori da kanpora transmititu eta helarazi nahi dugun mezua: gure ingurunera, kolaboratzaileengana, bezeroengana, etab.

Arrazoi horregatik, irailean egingo den ekimen erraz batean parte hartzera animatzen zaitugu, **ULMAko ahalik eta bazkide eta langile gehien elkartu eta talde argazki bat egiteko**. (Interesa baduzu zure Negozioko Marketin eta Komunikazio Departamentuetan lortu dezakezu informazioa).

animatu!



EGUNA: Irailaren 11

ORDUA: 18:00etan

TOKIA: ULMA Handling Systemseko aparkalekuan (Garagaltza Auzoa)